

Gure enpresaren helburu nagusia, enpresa osatzen duten eragile ezberdinentzat aberastasuna sortzea da, eta horretarako ezinbestekoa izango dugu etekinak lortzea. Etekin horiek lortzeko, gure enpresak errentagarria izan beharko du, hau da, kostuak ahalik eta txikienak izan daitezten eta sarrera edo irabaziak ahalik eta handienak izan daitezten saiatu beharko dugu. Etekinak baditugu urte batzuetan, enpresak behar duen hazkundera lortuko dugu, eta horrela etorkizunean bizi-irautea ziurta dezakegu.

Etekin horiek lortzeko ezinbestekoa izango da bezeroekin kontaktuan jartzea, hauek gure ekimenera hurbiltzeko eta ahalik eta diru gehien lortzeko. Bestalde, bezeroek emango diguten diruaz gain, gure kanal eta enpresarentzako “sponsor” batzuk bilatu beharko ditugu, hauek ere ekonomikoki laguntza eman diezaguketelako. hainbat ekitaldi eta iragarki egiteko behar den dirua jarriz edota piraguak eta beste materialak erosteko prezioak jeitsiz.

Balizko bezeroak gure ekimenera hurbildu nahi ditugu, eta horretarako estrategia, ekitaldi, iragarki, etab. egokiak bilatu behar ditugu.

Hasteko, herritarrek jakin beharko dute kanal berri bat eraikitzen ari direla Gipuzkoan eta bertan kirol eta aktibitate desberdinak egiteko aukera izango dutela. Horretarako, iragarki bat egitea oso aproposa dela uste dugu. Egia da gaur egun iragarkiak telebistan botatzea nahiko garestia dela eta jende askok ez duela aukera beren produktuenak argitaratzeko, baina gure enpresak abantaila bat du: BASQUE TEAM izeneko euskal kirolarien elkarteak laguntza handiak ematen ditu, Euskal Herrian kirol desberdinak fomentatzeko eta zabaltzeko. Hau horrela izanda, elkarte honekin kontaktuan jarriko gara eta hauek arduratuko dira iragarkiaz. Baliteke gutako batek iragarkian parte hartu behar izatea kanalari buruzko informazioa ematen. Askotan BASQUE TEAM honek ezer kobratzen ez duen arren, posible da diru kantitate txiki bat eskatzea, eta hori horrela baldin bada, gure boltsikotatik jarri beharko dugu pixkabat.

Bigarrenik, behin iragarkia jende askok ikusi duela, baliteke ikusle askok ondo ulertu ez izatea eta duda ugari izatea gure ekimenari buruz. Horiek dituzten zalantza horiek argitu ahal izateko eta gure proiektuari buruz informazio gehiago eman ahal izateko, ekitaldi bat antolatuko dugu. Bertan, gure inizatiba presentatuko dugu eta azalpen orokor bat egiteaz gain, xehetasunetara ere joko dugu, galderak erantzuten saiatuz. Behin ekimena amaitu denean entzuleek zalantzak badituzte, gurekin hitz egiteko aukera izango dute eta horrela behar duten informazio guztia jasotzeko aukera izango dute.

Azkenik, iragarkia eta ekitaldia egin ondoren, gure azkeneko urratsa pertsona talde handi bati egun bateko froga egiteko aukera emanngo diegu. Talde hau zozketa bidez aukeratuko da, web orrian izena emateko lista bat jarriko dugu eta lista horretatik batzuk aukeratuko dira. Egun bateko froga egiten duten horiei asko gustatzen bazaie bizitakoa, bere gertuko lagun eta familia kideei gure analari buruzko informazioa emango diete, eta bertara gerturatzea gomendatuko diete. Horrela, bezero asko erakarriko ditugu eta gure enpresa hazi egingo da.

Hiru urrats hauek jarraituta, espero dugu gure enpresa maila gorenean egotea eta ahalik eta etekin handienak lortzea.